



Agindua, Hezkuntza sailburuarena; honen bidez, hasiera ematen zaio xedapen orokor bat egiteko prozedurari: Hezkuntza Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzeko agindua bosgarren aldiz aldatzen duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduak ezartzen ditu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak. Agindu hauek aldatu dute: 2014ko ekainaren 3koa, 2015eko uztailaren 9koa, 2016ko maiatzaren 16koa eta 2018ko maiatzaren 16koa.

Aldaketa honek gaur egun indarrean dagoen prezio publikoen sistema sinplifikatu nahi du, argiagoa eta aplikagarriagoa izan dadin. Hainbat neurritan gauzatzen da:

- Kirolenek ematen dituen ikastaroen prezioa gaur egun baino txikiagoa izatea, benetan garestia delako; beste irakaskuntza batzuetan, berriz, ikastaroak doakoak dira, hala nola lanbide-heziketan; hori guztia kontuan hartuta Lanbide Heziketak kirol-irakaskuntzen antzeko modulu-egitura duela eta, beraz, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren arloko Lanbide Heziketako zikloak doakoak direla.
- Kirol-irakaskuntzen barruan arautu gabeko prestakuntzetarako prezioa ezartzen du.
- Federazio-diplomak homologatzeko baterako probetarako prezio publikoa sortzen du.
- Eibarko Hezkuntza Esparruko ikasleei ematen zaizkien jantoki eta ostatuko prezio publikoak eguneratzen ditu.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengo artikulua.- Xedapen orokor bat egiteko prozedura hasteko agintzea: Hezkuntza Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzeko agindua bosgarren aldiz aldatzen duena.

Bigarren artikulua.- Xedapen orokorraren proiektua hasteko, Agindu honen eranskinean jasotako premisak hartuko dira oinarritzat. Premisa horiek xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen XOEPLn aurreikusitakoaren arabera hartuko dira kontuan.

Vitoria-Gasteizen, sinatzen den egunean,

Begoña Pedrosa Lobato
Hezkuntzako sailburua





ERANSKINA

Hasteko agintzen den Agindu-proiektua egiteko, honako premisa hauek hartuko dira kontuan:

1.- Xedea eta helburua

Helburua da Hezkuntza Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak finkatzeko agindua bosgarren aldiz aldatzea, orain daukaten egitura sinplifikatzeko. Horrez gain, Kirolenek ematen dituen ikastaroen prezioa jaitsi egingo da eta kirol-irakaskuntzen barruan arautu gabeko prestakuntzetarako prezioa eta federazio-diplomak homologatzeko baterako probetarako prezio publikoa ezartzen dira. Halaber, Eibarko Hezkuntza Esparruko ikasleei ematen zaizkien jantoki eta ostatuko prezio publikoak eguneratzen dira. Arautegi hori Agindu batean jasota dagoenez, Agindu hau aldatzea beste aukera arautzailerik ez dago.

2.- Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak Hezkuntza Sailari esleitzen dizkio Irakaskuntzaren alorrean Autonomia Estatutuan ezartzen diren ahalmenak, araubide orokorrekoak zein araubide berezikoak (12.1. artikulua). Araubide bereziko irakaskuntzaren artean kirol-irakaskuntzak daude.

Era berean, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuak Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren eginkizunen artean (16.1 artikulua) hauxe jasotzen du: Ikastetxeek egoki funtziona dezaten behar diren administrazio-neurriak hartzea (f apartatua), eta Araubide bereziko irakaskuntzen (hizkuntza- eta arte-irakaskuntzen) ezarpena eta garapena programatzea eta diseinatzea (k apartatua).

Dekretu horrek berak, Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren barruan, Ikaskuntza Berezien Zuzendaritza sortzen du (21. artikulua), eta haren eginkizunen artean dago araubide bereziko kirol-irakaskuntzak garatu eta ezartzeko behar diren ekintzak planifikatu eta ezartzea (c apartatua).

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 33. artikulua ezartzen duenez, prezio publikoak ezartzeko edo aldatzeko, lege berezi batean bestelakorik ezarri ezean, prezioa kobratu behar duen organo edo erakundearen gaineko sailburuaren agindua beharko da, organo edo erakunde horrek proposaturik.

Uztailaren 30eko 397/2013 Dekretuaren eranskinaren 5. puntuak Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntzaren eta unibertsitateen arloan eskumena duen sailaren zerbitzu eta jarduerak zehazten ditu, prezio publikoen bidez ordain daitezkeenak, besteak beste:

- Jantoki-zerbitzua.
- Egoitza-zerbitzua.
- Eibarko Hezkuntza Esparruan eman beharreko hainbat zerbitzu.
- Kirol Irakaskuntzako Zentroen irakaskuntza-zerbitzuak.
- Azterketa-eskubideak.

Aipatutako dekretuak 3. artikuluan berresten duenez, prezio publikoen zenbatekoa ezarri edo aldatzeko, dagokion sailburuak edo prezio publiko horiek jaso behar dituen erakunde autonomoa menpean duen sailburuak Agindua eman beharko du, betiere Ogasunean eskumena duen sailak txosten loteslea egin ondoren.

Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, XOEPLk 12. artikuluko 1. paragrafoan ezartzen du: "Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren



gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da"; kasu honetan, Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez.

3.- Ondorioak ordenamendu juridikoan

Agindu-proiektuak aurrekontuan izango dituen ondorioak erantsitako memoria islatzen dira (Memoria, Hezkuntza Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dituen agindua bosgarren aldiz aldatzeko aginduari buruzkoa).

4.- Proiektuaren aurrekontu-gorabeherak

Agindu-proiektu honek helburu hauek ditu:

1. KIROL-IRAKASKUNTZEN PREZIO PUBLIKOAK ALDATZEA

Kirol-irakaskuntzei dagozkien prezio publikoak 2013ko uztailaren 10eko Aginduan jasotzen dira, 2016ko maiatzaren 16ko Aginduak egindako aldaketan.

Aurreikusten den sistema oso kasuistikoa eta zaila da berez, eta agindu berean beste irakaskuntza batzuetarako jasotakoarekin alderatuta. Horregatik, bi helbururekin aldatzea proposatzen da:

Alde batetik, sinplifikatzea, argiagoa eta errazago aplikatu dadin. Bestalde, zenbateko ekonomikoari dagokionez, egungo sistemak kredituen araberako zenbatekoetan oinarritutako prezioa eratzen du. Kreditu horiek aplikatuta, ikasturte bakoitzeko ateratzen den zenbatekoa benetan handia da; CPED Kirolene KIIPen web orrian ikus daitekeenez (Euskadin araubide bereziko kirol-irakaskuntzak ematen dituen ikastetxe publiko bakarra da), ikasturtearen zenbatekoa 1.000 eurotik gorakoa da, eta, kasu batzuetan, dezente handiagoa ere bada. Hala ere, berdina ez diren arren mailari dagokionez baliokideak diren irakaskuntzak, Lanbide Heziketaren kasuan bezala, doakoak dira.

Kirol-irakaskuntzek Lanbide Heziketaren antzeko modulu-egitura dute. Biek prestatzen dituzte ikasleak lan-merkatuan sartzeko, eta biak bloketan edo moduluetan banatuta daude. Egia bada ere kirol-irakaskuntzek araubide bereziko irakaskuntzak izateagatik prezio publikoa izatea justifika daitekeela, ezerk ez du justifikatzen zenbatekoan hain alde handia egotea, are gehiago kontuan hartuta Lanbide Heziketaren barruan jarduera fisikoen eta kirol-jardueren arloko heziketa-zikloak doan eskaintzen direla, eta antzeko kirol-irakaskuntzen zikloek, berriz, lehen aipatutako kostuak dituztela.

Aldaketa honek proposatzen duen sistemak eutsi egiten die administrazio-alderdiei dagozkien zenbatekoei, hala nola ikastetxean ikasketak hasteagatiko espediente irekitzeari, nahitaezko zerbitzuei eta espediente akademikoa lekualdatzeari.

Gainerako prezio publikoei dagokienez, kirol-modalitateak edo -espezialitateak arautzen dituen araudia kontuan hartzea komeni da. Kirol modalitate edo espezialitate horietako gehienak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikora (LOE) egokitu dira. Hala ere, zenbait modalitate edo espezialitate Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak (LOGSE) arautzen ditu oraindik ere. Logikak dio LOEa egokitzen joango direla, nahiz eta kasuren batean, futbola eta areto-futbola kasu, ez den aurreikusten egokitzapen hori epe laburrean.

Irakaskuntzen egitura, ordea, desberdina da. LOGSE irakaskuntzak bloke komun batean, bloke espezifiko batean, bloke osagarri batean eta prestakuntza praktikoko bloke batean



egituratzen dira, bai lehen eta bigarren mailan (kirol-teknikariaren titulura daramatenak), bai goi-mailan (goi-mailako kirol-teknikariaren titulura daramatenak). Goi-mailako graduak, gainera, amaierako proiektu bat du. LOEren irakaskuntzek, aldiz, bloke komun bat eta bloke espezifiko bat baino ez dute, bai hasierako eta amaierako zikloetan (kirol-teknikariaren titulua lortzeko), bai goi-mailako zikloetan (goi-mailako kirol-teknikariaren titulua lortzeko). Goi-mailako graduak, gainera, amaierako proiektu bat du. Aurrekoa ikusita, bloke bakoitzeko prezio bat mantentzeak azken prezio desberdinak ekarriko lituzke, modalitate edo espezialitate bat arautzen duen araudiaren arabera (LOGSE edo LOE), eta horrek ez du inolako funtsik, irakaskuntzak gainditzeak titulu bera dakarrelako (kirol-teknikaria eta goi-mailako kirol-teknikaria), LOGSEkoak edo LOEkoak diren alde batera utzita.

Horregatik, eta azken helburua modalitate eta espezialitate guztiak LOE izatea denez, LOE multzoetarako prezio publikoa ezartzea erabaki da, ikasturte bakoitzaren prezio finala berbera izan dadin, kirol-modalitatea edo -espezialitatea eta horiek arautzen dituen Legea (LOGSE edo LOE) edozein direla ere.

Ez da prezio altuagorik ezartzen erkidegotik kanpora joan behar duten espezialitateetarako (neguko edo mendiko kirolak, adibidez); izan ere, gastu handiagoak (garraioa, ostatur...) ikasleek ordaintzen dituzte, eta, beraz, ez dute eraginik Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan.

Prestakuntza-moduluak baliozkotzeari buruzko prezioari dagokionez, baliozkotu beharreko modulu bakoitzeko 5 euro ezarri dira. Kalkulu hori egiteko, blokeetako batean modulu gehien dituzten zikloak hartu dira kontuan; zehazki, bloke espezifiko 10 modulu. Bloke espezifikoaren prezioa (50 euro) modulu-kopuruarekin (10 euro) zatitzen da, eta baliozkotu beharreko modulu bakoitzeko 5 euroko zenbatekoa ateratzen da.

2. FEDERAZIO-DIPLOMAK HOMOLOGATZEKO BATERAKO PROBETARAKO PREZIO PUBLIKOA SORTZEA

Araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen iragankorrak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari, gaur egun Hezkuntza eta Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa denari, ematen dio federazio-izaera hutsarekin egindako prestakuntzak aitortzeko prozedura arautzeko aukera, 1999ko uztailaren 5eko Agindua indarrean sartzetik (abenduarien 19ko 1913/1997 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrak aipatzen dituen kirol-arloko prestakuntzen curriculum-alderdiak eta baldintza orokorrak osatzen dituen) urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretua indarrean sartzetik den arte.

Abenduarien 19ko 1913/1997 Errege Dekretuak araubide bereziko irakaskuntzat hartu zituen kirol-teknikariaren titulazioak lortzeko irakaskuntzak. 1. xedapen iragankorrak aldi iragankor bat ezartzen zuen, irakaskuntza berriak hezkuntza-sistemaren araubide bereziaren barruan benetan ezarri arte.

Hala eta guztiz ere, 1999ko uztailaren 5eko Agindua indarrean jarri zenetik (uztailaren 14ko BOE) eta urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretua indarrean sartu arte (azaroaren 8ko BOE) federazio-bidez soilik prestatutako pertsona askok ezin izan dute teknikariaren titulazio ofizial bat eskuratu, eta, beraz, kirol-lanbideen jarduna arautzen duten testuinguruetan, ezin izan dute beren lanbide-jarduera garatu.



Hori dela eta, abenduaren 21eko EFP/1299/2022 Aginduak (2022ko abenduaren 29ko BOE) atletismo, saskibaloia, eskubaloia, judo eta bela modalitateetan kirol-entrenatzaileen federazio-prestakuntzak aitortzeko prozedura ezartzen du, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuan aurreikusia, 1999ko uztailaren 15etik 2007ko azaroaren 8ra bitartean egindakoak, eta honako baldintza hauek ezartzen ditu:

- Dagokion kirol-modalitate edo -espezialitateko dagokion mailako (I, II edo III) entrenatzaile izatearen egiaztatzea, Kirol Kontseilu Gorenak onartua. Lehen fase honetan, Espainiako atletismo- eta saskibaloia-federazioek eta lurralde-federazioek emandako federazioen kirol-prestakuntzak aitortu dira, Kirol Kontseilu Gorenaren Lehendakariaren 2023ko azaroaren 28ko bi ebazpenen bidez. Aurreikuspenen arabera, bigarren fase batean onartuko dira abenduaren 21eko EFP/1299/2022 Aginduan jasotako gainerako kirol-modalitate edo -espezialitateei dagozkien prestakuntzak.
- EFP/1299/2022 Aginduan ezarritako baldintza akademikoak egiaztatzea.
- Dagokion modalitatearen edo espezialitatearen errege-dekretuan agertzen diren irakaskuntzen oinarriko curriculumaren edukiei buruzko proba orokor bat gainditzea.

Era berean, Agindu horrek ezartzen du prozedura aplikatzeko epea bost urtekoa dela, Agindua indarrean jartzen den egunetik kontatzen hasita, hau da, bost urtekoa, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

EFP/1299/2022 Aginduaren 2. artikulua ezartzen du autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioek eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak, beren kudeaketa-eremuan, garatu beharko dutela agindu honetan deskribatutako prozedura.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariak, EFP/1299/2022 Aginduan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan, aipatutako federazio-diplomak homologatzeko multzo-probetarako deialdia egingo du. Proba horiek egiteko, derrigorrezkoa da prezio publiko bat sortzea. Sarbide-proba espezifiko baterako prezio publiko bat dagoenez, komenigarria dirudi zenbateko bera (28,02 euro) jasotzea bietarako.

Ez da erraza aurreikusitako diru-sarreraren kalkulua egitea. Alde batetik, atletismo eta saskibaloiko euskal federazioekin harremanetan jarrita, federazioek adierazten digute zaila dela jakitea zenbat pertsonak eskatu dezaket, federazio-prestakuntza egin ondoren, proba bateratua egitea. Nolanahi ere, zenbaki batzuk aurreikusten dituzte (270 eta 300 artean atletismoan eta 1000 inguru saskibaloian); hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan prestakuntza egin duten pertsonak izango lirateke, baina kontuan izan behar da pertsona horiek guztiek ez dutela eskatutako titulazioa izango, eta, bestalde, prestakuntza egin eta titulazioa izan arren, prozesuan parte hartzeko azken erabakia pertsona bakoitzaren esku geratuko da, parte-hartzea ez baita nahitaezkoa. Azkenik, kontuan izan behar da prestakuntza beste autonomia-erkidego batzuetan egin duten pertsonak ere parte hartu ahal izango dutela. Hori guztia dela eta, ezinezkoa da zenbat pertsonak parte hartuko duten jakitea.

3. KIROL-IRAKASKUNTZEN BARRUAN ARAUTU GABEKO PRESTAKUNTZEN PREZIOA EZARTZEA



Ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka osoki babestekoak, 5. artikuluan, prestakuntzari buruzkoan, ezartzen duenez, "*Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, haurren eta nerabeen oinarrizko eskubideen arloko prestakuntza espezializatua, hasierakoa eta etengabea, sustatu eta bermatuko diete adingabeekin ohiko harremana duten profesionalei*", eta prestakuntza horren gutxieneko edukia ezartzen du.

Antzeko prestakuntza-betebeharra ezartzen du Eusko Legebiltzarraren otsailaren 15eko 2/2024 Legeak, Haur eta Nerabeei buruzkoa.

Kirolene Eusko Jaurlaritzaren Kirol Irakaskuntzen ikastetxe publikoa da, eta araubide bereziko kirol-irakaskuntzen erdi-mailako eta goi-mailako zikloak ematen ditu, erdi-mailako eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak lortzeko.

Irakaskuntza arautu horiez gain, arautu gabeko beste prestakuntza batzuk ematen ditu edo eman ditzake, LANBIDEREkin egindako akordioen ondorioz, edo ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikotik eratorritakoa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osoki babesteari buruzkoa, LOPIVI izenekoa.

LOPIVI prestakuntza hori nahitaez egin behar dute profesionalki adingabeekin ohiko harremana izango duten pertsona guztiek. Kiroleneko kirol-prestakuntza arautua kirol-klub eta -erakundeetan jarduera profesionala garatzera bideratuta dagoenez gehienetan, eta, beraz, adingabeekin harremanetan egotea eskatzen duenez, ezinbestekoa da Kirolenek LOPIVI prestakuntza ematea. Horregatik, prestakuntza horri aplikatu dakioken prezio publiko bat sartzen da.

Hala ere, prezio hori modu zabalagoan definitzen da ("Arautu gabeko prestakuntza"), eta 20 orduko prestakuntza edo frakzio bakoitzeko prezioa izango da, 20 eurokoa. Konfigurazio hori egiteko, kontuan hartu dira, batetik, prestakuntzaren edukia eta entitatea, ordu-kopuruari dagokionez, eta, bestetik, bat egiten da Kirolaren Euskal Eskolak aplikatzen duen zenbatekoarekin (20 euro); Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailaren mende dagoen eskola da, gaur egun prestakuntza hori ematen duen zentroa dena.

Definizio orokorragoari esker ("Arautu gabeko prestakuntza"), Kirolenek etorkizunean eman ditzakeen arautu gabeko prestakuntza hipotetikoek ez lukete prezio publiko berri bat sortu behar, baizik eta prezio publiko hori aplikatuko litzaieke, prestakuntza-karga antzekoa duten prestakuntzak direlako.

Ezinezkoa da atal honetan aurreikusitako diru-sarrerak kalkulatzea. Lehenik eta behin, ez dakigulako zenbat pertsonak egingo duten LOPIVI prestakuntza, eta bigarrenik, etorkizunean eman daitezkeen arautu gabeko beste prestakuntza batzuk sartu nahi direlako atal honetan.

4. EIBARKO HEZKUNTZA-ESPARRUKO PREZIOAK EGUNERATZEA

Une honetan, aldatu egin behar dira Eibarko Hezkuntza Esparruko ikasleei emandako egoitza-eta jantoki-prezio publikoak, 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren 3.1 artikulua C apartatua jasotakoak, 2018ko maiatzaren 16ko Aginduak sartutako aldaketan. Igoera bat etorriko da 2023ko urtarrilaren 1ean eta 2024ko azaroaren 30ean izandako kontsumoko prezioen indizearen igoerarekin.



Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, Indize Orokor Nazionalaren aldaketa, oinarritzko KPI sistemaren arabera, % 6koa izan da aldi horretan. Beraz, igoera hori aplikatu dugu prezio berriak kalkulatzeko.

Egun indarrean dauden prezioei % 6ko igoera hori aplikatzearen ondorioz ateratzen diren kopuruak biribildu egiten dira, goitik edo behetik, dagokion zifrara, bi zenbaki hamartarrekin.

Biribiltze-arau horiek aplikatzean, salbuespen bat egin da. Egoiliarrak ez direnentzako janariaren prezioa eskudirutan ordaintzen dela kontuan hartuta, goian aipatutako igoera aplikatzean ateratzen den prezioa kalkulatzeko, emaitza 10 zentimoko multiploa den kopuru hurbilenera biribildu da, 1, 2 eta 5 zentimoko txanponak erabili gabe ordainketa egin ahal izateko.

Eibarko Egoitza Zentroan egoitza eta jantoki kontzeptuengatik, hurrenez hurren, 2024an 706.000,00 € eta 10.391,30 €-ko diru-sarrerak lortu zirela kontuan hartuta, Agindu honetan planteatutako prezio-aldaketak 42.983,48 €-ko igoera eragingo duela lortutako diru-sarreretan aurreikusten da.

5.- Egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak

XOEPLe 13.1 artikulua e) letran xedatutakoaren arabera, hasteko aginduan adieraziko dira proposatutako erregulazioaren gaiaren eta edukiaren arabera bidezkoz jotzen diren izapideak eta txostenak. Honako izapide eta txosten hauek egin eta onartu behar dira agindu hau egiteko:

5.1.- Prozedura osoaren izapidetzea (ondoren deskribatzen da, beharrezkoak diren txostenekin batera) izapidetze elektronikorako "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bitartez gauzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozedura modu elektronikoa izapidetzeko jarraibideak onartzeko Gobernu Kontseiluaren 2012ko azaroaren 27ko Erabakiari jarraikiz.

5.2.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua, lege-mailako arauak eta erreglamenduak egiteko prozeduran herritarren parte hartzeari buruzkoak, xedatzen du kontsulta publiko bat egingo dela legearen edo erreglamenduaren proiektua edo aurreproiektua egin aurretik, administrazio eskudunaren webgunearen bitartez. Kontsulta horretan, jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik nabarmenenek.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiak, arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dituenak, bereziki, EAEko Administrazio Orokorraren esparruan sustatzen diren ekimenak izapidetzeko jarraibideak, kontsulta publikoaren izapidea betetzeko jarraitu beharreko jardura-protokoloa ezartzen du, hastapen-fasean txertatua. Horretarako, honako hiru jarduketak hauek egin beharko dira:

- Iragarki bat argitaratzea EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, eta herritarrek gonbidatzea honako hauei buruz iritzia eman dezaten: arau onartzeko beharrari eta egokitasunari buruz, haren helburuei buruz, konpondu nahi diren arazoei buruz eta bestelako irtenbide arautzaile eta ez-erregulatuzaileei buruz.
- Informazio bera –LEGEGUNEAN– jarriko da ikusgai, administrazio-espeditentzarako argitaratzeko espazio gisa, gardentasunari buruzko betebeharrak betetzeko
- Era berean, aurreko informazioa gobernu irekiaren plataformari –IREKIA– helaraziko zaio, non herritarrek Administrazioaren jarduketan berri izan ahal izango duten, eta beren iritzia modu erraz, ireki eta informalean eman ahal izango dituzten; hala badagokio, argitaratutako jarduketari buruzko eztabaidak sor ditzakete.



Aurretiatzko kontsulta 2024ko azaroaren 6an egin da, egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuta, eta aldez aurreko kontsulta-epea 15 egun baliodunekoa izan da (2024.11.07-2024.11.27).

5.3.- Aurretiatzko kontsulta egin ondoren, Agindua egiteko prozedura Hezkuntzako sailburuaren agindu bidez hasiko da, XOEPLren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da. Argitalpen horrek sail guztiei automatikoki jakinaraztea ekarriko du, hala badagokio, ekimenari buruzko oharra egin ahal izan ditzaten.

Halaber, hasteko agindua ezagutza partekatuko lankidetzaren gunean –LEGESAREA– txertatuko da.

5.4.- Agindu-proiektuaren testua idazteko, hasiera-agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak eta aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkoitasuna bermatzeko komenigarritzat jotzen diren kontsulten emaitzak.

Agindua bi hizkuntza ofizialetan, euskaraz eta gaztelaniaz, idatziko da argitara dadin. Era berean, prozedura osoan zehar, prestaketan parte hartzen dutenen eta hartzaileen hizkuntza-berdintasuna bermatuko da.

Landutako testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, aldez aurretik onartu baino lehen eta ondorengo izapideetan. Bi hizkuntzen arteko berdintasuna bermatu behar da araua idazteko prozesu osoan zehar hizkuntza-bertsioak egitean, eta hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabili behar da, XOEPLren 14.5 artikulua ezartzen duen moduan eta Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian xedatutakoa aplikatuz. Erabaki horren bidez, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak elebitan egiteko neurriak onartzen dira.

Aurrekoa aplikatuz, hizkuntza ofizialak parekatzeko, egin asmo den Agindua bi hizkuntzetan idatziko da aldi berean, IVAPeko itzulpen-zerbitzu ofizialen laguntzarekin.

Era berean, aginduaren azken testuaren euskarazko bertsioak gaztelaniazko bertsioarekiko duen zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatze aldera, eta alderantziz, Eusko Jaurlaritzako Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) gainbegiratu du proiektuaren idazketa, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin bat etorriz (dekretu horren bidez, haren itzulpen-erakunde autonomoen zeharkako zerbitzuen zentralizazioa zehazten da).

5.5.- XOEPLren 15. artikulua arabera, Hezkuntza sailburuak agindu-proiektua onartu beharko du dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

5.6.- Hasiera batean, aurreikusitako agindu-proiektua egiteko eta onartzeko, txosten hauek egin behar dira:

Arauen eragina aztertzeke memoria:

XOEPLren 15.3 artikuluan jasotako atalak izango ditu.

Hezkuntza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridikoa:

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legearen 15.4 artikulua honako hau ezartzen du: "dagozkion sailak egoki iritziz gero, espedientearen edukia eta analisi juridikoa txosten juridiko espezifiko batean jasoko dira. Txosten hori prozedura bideratu duen saileko zerbitzu juridikoak egingo du, memorian aipatuko da, eta haren betebeharra izango da geroko izapidetze-prozesuari begira proiektuaren oinarrien defentsa juridikoari euste ea, eta oinarritzea edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorrela eta betetzen direla kasuan kasu ezartzen diren araugintza-teknikaren gaineko jarraibideak".



Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeari buruzko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4.a) artikulua arabera, sailtako edo erakunde instituzionaletako aholkularitza juridikoei dagokie: "Xedapen orokorren proiektuak prestatzea, eta aurrez egin beharreko txosten juridikoak eta lan tekniko-juridikoak egitea".

Ondorio horietarako, instrukzio-organoak beharrezkotzat jotzen du Hezkuntza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legearen 15.3 artikuluan jasotako arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egitea, ondoren izapidetzeko, proiektuaren oinarrien defentsa juridikoa egiteko, proiektuaren edukia legera eta zuzenbidera egokitzeko eta, hala badagokio, ezartzen diren araugintza-teknikaren jarraibideak betetzeko.

Genero-eraginari buruzko txostena:

XOEPLren 14.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren araberrako eraginari buruzko txosten bat egingo da, eta Emakunderen esku jarriko da, legerian jasotakoa hobetu ahal izateko.

Txosten honen beharra bat dator emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoarekin, eta, hura egiteko, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako Jarraibideak jarraituko dira (2012ko irailaren 25eko EHAA, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez argitaratua).

Euskararen erabilera normalizatzeko txostena:

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak txosten bat egingo du hizkuntzaren arloan indarrean dagoen araudiaren egokitzapenari buruz, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 289/2024 Dekretuaren 14.2.k) artikuluan ezarritakoaren arabera eta xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Enpresaren gaineko eraginari buruzko txostena:

Enpresaren gaineko eraginaren ebaluazio-txostena egingo da, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikulua arabera.

Legezkotasunari buruzko nahitaezko txostena:

Txosten juridikoak ezartzen duenaren arabera, XOEPLren 22. artikuluan jasotako legezkotasunari buruzko nahitaezko txostena eskatuko da.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena:

XOEPLren 23. artikuluan ezarritakoa betez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena eskatuko da, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluaren eta EAeko barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Administrazioko Zuzendaritzaren txostena:



Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Administrazioako Zuzendaritzaren txostena. Zuzendaritza honek txosten bat egingo du, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginaren 33.3. artikulua araber, baldin eta arauak prezio publikoak finkatzeko edo aldatzeko proposamenak jasotzen baditu, kasu honetan bezala.

Ez da nahitaezkoa Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, XOEPLren 20. artikuluan zehazten dena; izan ere, gaia arautzen duten xedapen espezifikoek ez dute ezartzen Lan Harremanen Kontseiluaren txostena eskatu behar denik.

Halaber, ez da nahitaezkoa Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, 6/2022 Legearen 21. artikuluan zehazten dena, arauak ez baitie eragiten udalerrien eskumen propioei.

5.7.- Egokitzat jotzen da jendaurreko informazioaren izapidea, XOEPLren 17. artikuluan jasotakoa.

5.8.- Hasteko agindu honen espedienteari erantsiko zaizkio kasuan kasuko dokumentazio guztia, egindako azterlan eta kontsultak, prozedura osoaren memoria labur bat eta memoria ekonomiko bat, XOEPLren 24. artikuluan adierazitako edukiarekin eta 6/2022 Legearen 24. artikuluan adierazitako edukiarekin, Gobernu Kontseiluak agindu-proiektua onar dezan, aipatutako legearen 30. artikuluan adierazitako moduan.

6.- Europar Batasunaren aurreko izapideak.

Ez da beharrezkotzat jotzen Europar Batasunean izapiderik egitea.

7.- Instrukzioa egingo zaion administrazio-organoa izendatzea.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza arduratuko da prozedura bideratzeaz.